

kolaborazioak

Argi itsugarria, benetan, artasonar idazleak Nafarroaren iraganean ezarri duena. Nekez irakur ditzake orrialde horiek euskaltzale batek ere, barrunbeak berak inarrosen zatziola nabaitu gabe

Lehenengo urratsa, zapalketa. Nola edo hala erazi, ebaki, txikitu Gero? Lasai. Kondaira, garaitu duten ikiritiatuko baitute.

Eta herriak? Zapaldutakoen seme-alabek... ahantzi egingo dute. Eskola-liburuak garaitzailearen moldera moldatu, birmoldatu. Eta, denboraren joana lagun, kitto.

Hauxe izan da zafraketa gutzien bilduma.


Gurean ere bai.

Eta horregatik J.M. Jimeno Jurio jakintsuaren lan eskerga eta eskergaitza, ordaindu ezina da. Txalaparta-k argitaratu berria duen "Navarra. Historia del Euskera" bikainean ere naharmen agertu denez.

Argi itsugarria, benetan, artasonar idazleak Nafarroaren iraganean ezarri duena. Nekez irakur ditzake orrialde horiek euskaltzale batek ere, barrunbeak berak inarrosen zatziola nabaitu gabe.

Koldo Izagirrek berriki idatzi duenez, «izulitako herria» gara; erdarara itzulia preseski. Deserrotua, hitz batez, hitz hori bere jatorrizko adetik hartzen dugularik.

«Dicha Iruñea, escrita Pamplona» irakur dezakegu (56), labur eta zehatz. Geroritik modan ere jarri zen «diglosia» hizari dagokion funtsa, aspaldidanik gauzatu baita Euskal Herrian. Nafarroan, gainerako euskal lurraldeetan bezala, hizkuntza bat baitzen jendea mintzo zena, euskara; eta beste bat ikiritiatzen zena, Binomioa, alegia, garbi: erd. *lengua culta*, vs. *lengua nística*.



Iragana berreskuratu

TXILLARDEGI • Hizkuntzalari eta idazlea

Bidaxunerri euskal eskola izateko eskubidea ukatzen zafon une honetan (Iparraldean), eta Sanzek eta Markotegik Hegoaldean han-hemenka gauza bera egiten dutenean, ongi dator besterik ere ikastea. Ebro ondo-ondoko Lazagurria, Elizagorria besterik ez dela; Mendabiako auzo baten izen zaharra Beraza dela; eta Lizarrako Foruan Los Arcosi Arkueta esaten zaiola. Jimeno Jurioren liburua irakurrita, nork ez du gaitzesko Nafarroa calvinismora

ez lerratu izana? Tamalgarrria izan zen, zinez. Beras-koitzko apaiz protestante hark, eta bere lankideek, segidarik lortu ez izana. Orain dela urte asko deitoratu zuen Krutwigek gertaera hits hau. Eta egia zuen. Besterik izango baitzatekeen Nafarroaren kondaira, Ipar Nafarroa Hegoaldekoari (eta Espainiari) nagusitu izan baitzaio.

Norbaiti gaitzi bazaio ere, Euskara Batua Leizarraga protestanteak asmatu eta bideratu zuen aspaldi. Eta eliza barruan ere euskarari

bere lekua aitortu arte, mende luzeak joan baitziztaizkigun; herri protestanteetan hizkuntza nazionalak mamitzen ziren bitartean.

Baina... «intervino la Inquisición» (irakur dezakegu 71. orrialdean), «recogiendo y quemando» liburu heretikoak (euskarazkoak guri orain dagokigunez). Frankismoaren garaian jai eta aste goraiatzen zen «Concilio de Trento» faziaren teoriak nagusitu ziren, eta Nafarroako eskudarrak hori ipini zituen bere oi-

narriak. Eta horretatik Terzioztara eta karkera gutxitari, zuzena da lerroa; eta etenik gabea.

Apezpikuen izendapena Madrilgo gobernuek ezitza, esate baterako, ez zuen Francisco Francok asmatu: «el emperador obispo del Papa el derecho de patronato sobre las diócesis que componaba la designación de titulares» (72). Nafarroako kalonjeek euskal apezpiku euskaldunak izendatzeko eskatu zuten «el memorial fue devuelto sin ninguna explicación» (J. Juriok, 72. orri). Blázquez ez da zerrandako lehena...

Egia esan protestanteek euskarazko liburua argitaratzeak, are Agoitzerraino eramateak ere, ez zuen ondorio larriarik; J. Juriok berak azpimarratzen zuenez, herri xeheak irakurtzen... ez baitzekien!

Oso interesgarria ere J. Juriok behin eta berriz azpimarratzen duen hizkuntzen erabilpen-egitura. Iruñeko Kondairan ere nabarmendu duenaren bidetik, herri xehea euskalduna zen; eta puntu/koak eta aberatsak, eraldunak. Lizarrari buruz mintzo delarik, adibidez, ohar argitsu hau dakar: «la parte más humilde de la población era de lengua vascongada» (92).

Eta abar, eta abar. Liburuia zinez urte hutsa baita; eta irakurri ondoren, askoz hobekiago ulertzen baitira gure begien aurrean degtatzen diren izugarrikeriak.

Nafar «catedrático» batzuk gure kontra ari direlarik, benetan, zer katedraz eta zer debruz ari zaizkigun ez da ulertzen.

semaforo gorria



Xabier AMURIZA

Itoizko kriminalak

Tirotik, Semaforo, tirotik! Ez hadi horren ahoandia izan. Ez al zagok hitzetan beste adjetibo dotagorik? Zer jartzea nahi zenuen? Itoizko litxarrerok? Txorizoak? Lapurrak? Itoizko mafiosoak? Delinkuenteak? Itoizko krimena jarri hanu, inor ez zen munduko. Horrela, abstraktuan, metafora puztu samarra, baina errodunik iradokitzen ez den bitartean, krimenak ez du mintik egiten. Ez da, ordea, metafora bai!

Obra hori inoiz geldiarazten bada, eta badirudi martxa hori daramala, ez al da izango naturaren aurkako krimen bat burutu nahi zelako? Nork esan du giza bizia bakarrik dela krimen-garri? Hala ere, Semaforoa gehien sumintzen duena bestea da. Itoizen eragileek, erantzuleek, agintariek bada-kite egunen batean nahitaz gelditu behar izateko probabilitate handia dagoela. Behar-bada etsiak claude horretara. Zantarrak bai, baina ergelak izatea zaila denez gero, pentsatzekoa da obraren gelditze

problema aldez aurretik asunturik daukatela. Ziur naiz egun lotsagarri hartan euren buruak nola zuriu ere prestatuturik daukatela.

Aurrera jarraitzen dute itsuki, setati. Itsuki ez, ondo baitakite zertan ari diren, hots, milaka tona hormigoizartzen lurraen sabel indetsuetan, horrek eskatzen dituen inguruko gehigarri guztiek. Dirutan emanik, milaka milioi traspasatzen ari dira ogasun publikotik politiko lapurrera. Seguruenik gutxienez ardua die Itoiz martxan jartzeak, obra amaitzen

baldin bada. Gelditu egin behar dela? Zenbat eta gehiago egin eduki, hainbat eta gastu haundiagoa desmuntatzen. Orduan Itoiz, behinola Lemoiz bezala, «desarraioaren monumentu-izendatuko dute eta hura bisitatzea joango gara, garapenaren mozkorrean, baina gaitzailerik ikusi gabe. Beharbada orain aginpidean daudenek euek ipinko dizkigute autobusak, hondamen baten konteplazioa Nafarroaren aberasgarri bitu dadin.

Barabarokeria demokratiko horixe guztia bizitzen ari gara Itoiz-en, geure muturren aurrean. Eutena dela dioten teta ez al da? buri

bihotz errespetatzen dutela dioten justiziari ere entzongor egink, gure lurralde hormigoiazen gerra deklaratu diotenak kriminalak ez balira, nori aplikatu behar zao adjetibo nahiko onbera hori? Egon apur baten, oraindik ez baitute krimen osari burutu. Badakite justiziek, bere lentotasun kalkulatuaren denerako astira emango dietela. Lehen Entzotegi Nazionala, orain Madridgo Justizia Auzitegi Nagusia baina oraindik Auzitegi Corena gelditzen da eta gero Auzitegi Konstituzionala. Horiek denak nagutzeko, hormigoiak amaitzea daude. Itoizko Solidarioak berrin amaitzen ez badira,